AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1223

36/2014 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez baliogabetu egiten da Amaia Echebarria Altuna andreak Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako Unitateko buru gisa jasoa zuen eginkizun-esleipena.

Barrualde Eskualdeko gerentearen apirilaren 7ko 95/2003 Ebazpenaren bidez, Amaia Echebarria Altuna andreari Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako Unitateko buruaren funtzioak esleitu zitzaizkion.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Gerentzia honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Berak eskatuta, Amaia Echebarria Altuna andreak Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako Unitateko buru gisa jasoa zuen eginkizun-esleipena baliogabetzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2014ko otsailaren 12a.

Barrualde-Galdakao ESIko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.